

Donostia, 2024ko ekainaren 21a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, ETXEBIZITZA HUTSEI KANONA APLIKATZEARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua xedatutakoaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Euskadiko Etxebizitzaren Legeak (3/2015, ekainaren 18a) 57. artikuluan ezartzen du kanon bat aplikatu dakiekeela jenderik gabeko etxebizitzari, etxebizitzaren jabetzaren funtzio soziala bete dadin sustatze aldera. Zergaz kanpoko ezarpen bat da, udalen kontura, jenderik gabeko deklaraturako etxebizitzak zergapetzeko. Era beran, kontzeptu horregatik lortutako diru-sarrerek lurzorua udal ondarea hornituko dutela ere xedatzen du.

Kanon hori ez da bateraezina Udalak udalerriko etxebizitza hutsei aplikatzen dien errekararekin, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza xedatutakoarekin, alegia.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuen azken azterlanaren arabera, Donostiak 5.522 etxebizitza huts ditu. ¹

9.409 donostiar daude Etxebidaren zerrendetan izena emanda. Egoera horren aurrean, eta alokairu- eta erosketa-prezioak Estatuko eta Europako garestien artean izanik (batez ere herritarren errenta-mailaren proportzioan), ezinbestekoa da indarrean den legeriak etxebizitza eskuratzeko bidea errazteko jarrita dituen tresna guztiak erabiltzea.

Euskadiko beste herri batzuetan oraindik aplikatu gabe izateak ez luke eragozpen izan behar.

¹ <https://www.donostitik.com/donostia-tiene-5-522-viviendas-vacias-de-un-total-de-69-952-de-euskadi/>

Etxebizitza eskuratzeko aukerak Donostian duen egoera dramatikoa dela eta, koherentea da Udal hau aitzindaria izatea egoera hobetzen lagun dezaketen neurri berritzaileetan. Konponbide hori etxebizitza berriak eraikitzea baino azkarragoa eta jasangarriagoa da, gainera.

Hori guztia dela eta, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio 2024. urtea amaitu baino lehen aplikatzeko Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legean ezarri eta 149/2021 DEKRETUAK etxebizitza hutsentzat araututa duen kanona, Udalaren ordenantza fiskalean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan zehaztuta dagoen errekarquarekin batera.

Arantza González García,

Elkarrekin Donostia Udaleko talde mistoko zinegotzia.